

# B E U S K A R A R E N B E R R I P A P E R A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILORDETZA

## "Hitzaro" euskararen inguruko telebista saioa hasiko da ematen ETB

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailordetza eta Euskal Telebista *Hitzaro* izena duen informazio saioa prestatzen ari dira, urritik aurrera ematen hasteko asmoarekin. *Hitzarok* euskararen inguruko informazioa zabalduko du, euskarazko eta gaztelaniazko saio banatan. Euskarazkoa larunbatetan emango da ETB 1ean. Gaztelaniazkoa, ordea, igandeetan, ETB 2an.

### Ezaugarriak

*Hitzarok* euskararen inguruan dagoen hutsunea bete nahi du. Izan ere, antolatzaileen iritziz, euskarak euskaldunengan ezezik, erdaldunengan ere eragina duen eguneroko gaia baita. Hori dela eta, izaera eta kutsu informatiboa izango du: euskararen inguruan gertatzen diren era guztietako berriak bilduko ditu, baita gainerako hedabideetan zabaldu ez edo bigarren mailan agertzen direnak ere.

Saio honekin bai Hizkuntza Politikarako Sailordetzak bai Euskal Telebistak publiko zabal eta anitza dute jomuga: euskarari zuzenean lotuta bizi direnak nahiz gaia interesatzen zaienak.

### Egitura

Saioaren egiturari dagokionez, astero bi erreportai

emango dira: batak gaurkotasuna duten gaiak jorratuko ditu, besteak, aldiz, euskarak Euskal Herriko herrialdeetan izan duen bilakaeraren berri emango du. Saio bakoitzean, halaber, pertsonaia ezagun bati egingo zaio elkarrizketa. Hainbat gairi buruz galdetuko zaio, baita euskararen gainean ere; astean zehar nabarmendu diren izenak aipatuko dira, azaldu diren liburuak eta diskoak aurkeztu eta sortu diren albisten berri eman. Agendan aurrakusten diren ekitaldien berri ere emango da. Astero, ordu erdiko tarte hartuko du *Hitzarok*.

Egiturari gagozkiola, bai euskarazko saioak bai gaztelaniazkoak *-Lengua Viva* du izenaamankomuneko ardatza izango dute, baina saio biek bereganatuko dituzten publikoen interes desberdinak kontuan hartuta, izango dute alderik. Elkarrizketan, esate baterako, ez dira beti galdera berdinak egingo euskarazkoan eta gaztelaniazkoan. Zenbaitetan, gonbidatuak berak izan daitezke desberdinak, hizkuntzaren arabera.

*Hitzarok* duen erronkarik handienetariko bat saioa informatiboa egiteaz batera interesgarria eta erakargarria ere egitea da. Horretarako, berezko estiloa eta erritmoa landuko ditu.

Saioko aurkezleak Aintzane

Gardoki eta Mikel Irizar dira. Biek herri telebistetan egin dute lan kazetari eta aurkezle gisa.

*Hitzarok* euskararen egunerokotasuna hurbilgotik ezagutzen eta hortik zehar zabaldurik dagoen hainbat mamu desagertarazten lagunduko duelakoan daude saioaren bultzatzaileak.

*Hitzaro* ekoizteko ardura Orio Produkzioak etxearena da. Hasteko, hamabost astean zehar emitituko da.



*Aurkezleak Aintzane Gardokik eta Mikel Irizarrek aurkeztuko dute Hitzaro. Bi bertsiotz izango ditu: euskaraz eta gaztelaniaz izango da, astero, ordu erdiz.*

# Elixabete Pérez Gaztelu, Mitxelenaren arrastoa

Elixabete Pérez Gaztelu, 33, Koldo Mitxelena (KM) handiaren herri berekoa da, Errenteriakoa. Hark bezala, amaren aldetik Iparraldean ditu erroak. Ez da harritzekoa, beraz, Euskal Filologia EUTGn egin ondoren, KM hautatu izana bere doktorego tesirako gai nagusitzat. Izan zuen beste arrazoirik ere: KMk euskararen bilakaeran duen itzala.

Iazko apirilean aurkeztu zuen tesia. Epaimahaiak gai cum laude eman zion doktore berriari. Aurtengo uztailean Errenteriako Udalak *Koldo Mitxelena Elissalt, Egitasmoa eta Egitatea*, doktorego tesian oinarritutako liburua argitaratu dio. KM aztertzen ari zela, geroz eta nabarmenagoak egin zitzaizkion hizkuntzalariaren ahalmen



Elixabete Pérez Gaztelu

ikaragarria, etor zitekeena igartzeko usaina, izpiritu kritikoa, oroimena eta apaltasuna. "Garai gogorrek tokatu zitzaizkion bizitzea eta nekearen nekez eta lanaren lanez lortu zuen halako erudizioa", dio. Uste du euskaldunok asko zor diogula KMri: "Euskal Filologia ikertzeko zimentarriak jarri zituen. Euskal irrati-telebistak entzun edo euskarazko egunkaria irakurtzerakoan konturatu gabe hari zor zaizkion elementuak erabiltzen ari gara". Gazteak KM irakurtzera animatu nahi ditu, nondik gatozen ahantz ez dezaten. Hasteko, KMren zine kritikak gomendatzen ditu, laburrak eta atseginak izanik, haren filosofiaren zati handia jasotzen baitute. Donostiako EUTGko ikasleei horixe bera esaten die.

## Euskal kulturaren aldeko Fundazioa

Iragan otsailean Euskal Kulturaren Aldeko Fundazioa legezatu zen. Fundazioak honako helburua du: Euskal Herriaren eta munduan zehar sakabanaturik dauden euskal komunitateen arteko harremanak bultzatzea. Euskal diasporako partaideak sartu bitartean, behin-behineko patronatu batek zuzenduko du. Juan Zelaia enpresarioa da fundazioko lehendakaria, Joseba Intxausti idazkaria eta Xabier Saizar diruzaina.

Estatutuek diotenez, fundazioak ez du politikan nahasteko asmorik. Finantziario pribatua izango du eta, bereak bultzatu baino, abian dauden proiektuei emango die laguntza.

Dagoeneko harremanetan jarri da Txileko eta Argentinako euskal komunitateekin. Laster beste horrenbeste egingo du Ipar Ameriketara eta Mexikon daudenekin.

**Gabriel Aresti XIII. Ipuin Lehiaketa** Bilboko Udalak Gabriel Aresti XIII. Ipuin Lehiaketaren oinarriak argitaratu ditu. Euskaraz zein gaztelaniaz idatzitako ipuinak aurkez daitezke. Lehiaketaren mota bakoitzerako 400.000 ptako sari bat izango da eta 200.000 ptako bina akzesit. Lanak Bilboko Udaleko Kultura eta Turismo Sailera bidali behar dira, urriaren 13a baino lehen.

**1995eko dirulaguntzak literatur sorkuntzari.** Espainiako Gobernuako Kultura Ministerioak literatur sorkuntzari emandako dirulaguntzen berri eman du Estatuko Aldizkari Ofizialean. Euskaraz idatzitako narratiban Pablo Sastreri eman zaio laguntza; poesian, Joxe Ezkiagari eta Luis Mari Izagirreri. Itzulpengintzan, erdaretatik euskarara edo alderantziz itzuliko diren 10 proiekturi eman zaie laguntza.

**"Zine Oro": ostera ETB1ean.** Iazko esperientziak izandako emaitza onak bultzaturik batezbeste 200.000 ikusle izan zituen, hau da, ordura arteko audientziaren halako bi- ETBk segida emango dio igandeetako Zine Oro saioan entzute handiko filmeak euskaraz emateari. Publiko gazteari begira, abentura eta akzioko filmeak hautatu dira saiorako.

**Aretxabaletako idazkera.** Aretxabaletako Loramendi euskara elkarteak Aretxabaletako Idazkera Liburutxoa eman du argitara. Egileen asmoa hau izan da: herritarrei erakustea zelan idatzi bertako euskararen - bizkaieraren azpieuskalki bat hitz egiten da Deba Garaiko herri honetan-; beti ere, Euskaltzaindiak euskara baturako eman dituen ortografi arauak errespetatuz.

# Euskara finkatuz doa euskal administrazioan

Euskal administrazioan euskararen erabilera normaltzeko lehen plangintzaldiak emaitza onak izan ditu.

Ezarpen maila oso handia izan da, administrazio gehienek onartu baitituzte zegozkien plangintzak: lanpostuen %95,97 sartuta zeuden.

Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeari dagokionez, plangintzaren aurrikuspenen betetze maila ere handia izan da: %88,5ekoa.

Derrigortasun datarik ez zuten 2.384 lanpostuetan ere hizkuntza eskakizunak egiaztatu dira. Halaber, derrigortuta ez zeuden beste asko ikasten ari dira.

Onespen zabal honetan badute zerikusirik plangintzaldia antolatzeke jarri ziren helburuak: progresiboak, lanpostuaren betebeharren arabera mailakatuak, errealitate soziolinguistikoari eta une historiko bakoitzari egokituak, euskara eta gaztelania zerbitzu eta lan hizkuntza gisa hartu

dituztenak, eta herri administrazioen autonomia errespetatuz ezarriak.

Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeke derrigortasun data izanda, badirenez hizkuntza eskakizun bat ere egiaztatu ez duten langileak, Hizkuntza Politikarako Sailordetza jarraipen estua eta azterketa sakona egiten ari da horientzako soluziobideak aurkitzeko.

Datorren plangintzaldirako, hauek dira helburuak:

Osasun alorrean lehen urratsak emateaz gain, plangintzaren irizpideak abian jartzea eta hedatzea.

Administrazioan erabilera programak sustatu eta horretarako babesa eta laguntza eskaintzea.

Plana onartu ez zuten erakunde eta administrazioekin bide berriak urratzea.

Administrazioak gizartearen duen proiektzioa kontuan hartuz, euskararen presentzia eta erabilera ziurtatzea bere ekintza eta programetan.

**Iñaki Alegria**, 38, irakasle donostiarraren Euskal Morfologiaren Tratamendu Automatikorako Tresnak izeneko doktorego tesiak gai cum laude goraipamena irabazi zuen EHUko Donostiako Informatika fakultatean. Lizentziatura EHU egin ondoren, Informatika irakasten du unibertsitate berean.

**Xabier Arregi**, 31, Zubietako irakasleak gai cum laude goraipamena jaso zuen Anhitz: Itzulpenean Laguntzeko Hiztegi-sistema Eleanitza izeneko doktorego tesiarekin. Honek ere EHU egin zituen Informatika ikasketak. Gaur egun Informatika fakultateko irakaslea da.

**Gerardo Markuleta**, 31, idazle eta kritiko oñatiarra bi hilabeteko egonaldia egiten ari da Iparraldean, Akitaniako Kultur Zuzendaritzak eta Euskal Kultur Erakundeak gonbidatuta. Literatur tailerretan, irakurraldietan eta hitzaldietan ari da esku hartzen Iparraldeko eskoletan.

## Euskarak saltzen du

Iragan abuztuan neska euskaldun bat Kathmanduko (Nepal) denda batean sartu zen zerbait erosi guran. Jabeak euskaraz agurtu zuen, euskaraz idatzitako txartela eman zion eta, gehiago saltzeko asmoz, euskaraz esaldi batzuk esateko eskatu zion. Neskak esaldiak esan ahala, Om Hari Shresthak bere koadernoan idazten zituen, ez ahazteko. Hark bazekien euskarak saltzen duela. Bai horixe!



EUSKARAREN BERRIPAPERERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

**Hizkuntza Politikarako Sailordetza**  
Wellingtono Dukea, 2  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz  Gazteleraz

Izen-deiturak: .....  
Helbidea: .....  
Herria: .....  
Kodea: .....  
Lurraldea: .....  
Tel.: .....


## Galdezka

### "Hitzaro" telebista saioa

**G.** Zein arrazoi izan ditu Hizkuntza Politikarako Sailordetzak euskararen inguruko telebista saioa bultzatzeko?

**E.** Gure ustez, gai honen inguruan informazio hutsune garbia dago: politika, kirola, zinea... interesatzen zaizkion jendeak baditu bereziki gai horiek jorratzen dituzten telebista saioak. Euskarak, berriz, eguneroko gaia den arren, ez du bere berriak zehatz eta ohi baino sakonago agertzeko tokirik; eta horretan interesik duten euskaldunek eta erdaldunek ere, zenbaitetan, berandu edo inoren ahotik izaten dute albiste horien berri.

Hori horrela, publiko zabal eta anitza gogoan izanik, euskararen eta euskararentzako txokoa bultzatu nahi izan dugu, gainerako komunikabideetan zabaltzen ez edo bigarren mailan azaltzen diren albisteak ezagutarazteko. Eta hori dena modu atsegin, arin eta entretenigarrian.



**Jose M. Zeberio**  
Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia.

## Gazteen Liburu Azoka Miarritzen

Iazko esperientzia onak bultzaturik -4.000 ikusle baino gehiago bertaratu baitziren gazteen liburu azokara-Miarritzeko Liburusaltzaileen Elkarteak Gazteen Liburu Azokaren edizio berria eratu du azaroaren 4an eta 5ean egiteko. Aurten euskal idazleek izango dute tokirik azokan.

Azokaren helburu nagusiak dira: gazte literaturari buruzko libururik onenen erakusketa antolatzea eta liburu horiek saltzea. Azokaren osagarri gisa, hainbat mintegi eta lan antolatu izan dira ikasturtean zehar Miarritzeko eskolatan, Frantziako bospasei idazlerekin elkarlanean. Era horretan, idazkuntza tailerrak eratu dira, idazleak eta ikasleak elkarrekin lan eginez.

Esan bezala, aurten eratzaileek tartea egin diete euskarazko liburuei.

- Azokaren osagarri, Gerardo Markuleta euskal idazlea hainbat eskolatan ari da bere eta beste euskal idazleen berri emanez.

- Eusko Jaurlaritzako hiru ordezkari gonbidatu dituzte azokan eratuko den mahaingurura.

- Hego Euskal Herriko liburu-saltzaileei euskarazko gazte literaturaren obrarik esanguratsuenen aukeraketa egiteko eskatu zaie, azokan erakusteko asmoz.

- Ipar eta Hego Euskal Herriko liburuzainen arteko bilera antolatu da, elkarren berri izan eta amankomuneko proiektuak bultzatzeko.

- Azokaren aurkezpena komunikabideei elkarrekin egingo diete Frantziako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta Akitaniako Kontseiluak urriaren 25ean eta 26an Ipar eta Hego Euskal Herrian.

## ✓ Kontutan hartzeko

- **Euskararen Normalizaziorako III. Udal Jardunaldiak.** Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak lanean dihardu euskarari dagokion udalgintzaren diagnosis egin eta proposamenak aztertuko diren III. jardunaldiak antolatzeko. Udal agintariak bilduko dira urte bukaeran egiteko diren jardunaldiotan.

- **Jokin Zaitegi Itzalpen**

**Saria.** Arrasateko AED elkarteak Jokin Zaitegi Itzulpen Laburren Sariaren IX. edizioa eratu du. Aurtengo gaia librea da. Gaztelanatik izan ezik, edozein hizkuntzatatik itzulitako gaiak aurkez daitezke. Lehen saria 250.000 ptakoa izango da; akzesitak, oster, 50.000 ptakoak. Bestalde, 15.000 ptako sari bat emango zaio gai honi buruzko lanik onenari: "Trenbide zaharrak bidegorri bihurtuz".  
Telefonoa: (943) 77 12 28.

**EUSKO JAURLARITZA**  **GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA